


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,4 igo ziren 2008ko apirilean

Azken hamabi hilabeteetan (2008ko apirila, 2007ko apirilarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %7,1 gehitu ziren.

2008ko apirilean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,4 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta apirilako urte arteko tasa %7,1era iritsi zen, Eustaten datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2008



(*)Gehikuntza apirilako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2008ko apirilean, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,5 igo ziren.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera desberdinak izan zituzten: aurreko hilaren aldean % 0,4 igo ziren Eraikuntzakoak eta % 0,9 Obra Zibileko lehengaien kostuak. Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratuz gero, ibilbide ezberdinak izan zituztela ikusiko dugu: Eraikuntzako lehengaien kostuak %7,2 hazi ziren, eta Obra Zibilekoak, aldiz, %7,7.

Apirilean prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: Metalurgia (%2,5) eta Petrolio fintzea (%2,4). Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten Material Elektronikokoak (%-1,5) eta Energia elektrikoa eta gasak (%-1,4),

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: Ez-metalezko

meak (%16,4), Energia elektrikoa eta gasa (%12,1), Ura (%11,4) eta Petrolioia fintzea (%9,0). Bestalde, urteko arteko prezioetan (2008ko apirila, 2007ko apirilaren aldean), igoera txikiagoak izan zituzten Metalurgia (%0,3), Makineria (%2,0) eta Zuraren industriako (%2,1) lehengaiek.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA	2008KO APIRILA
--	-----------------------

GOIBURUAK	INDIZEA 2000 = 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	115,6	0,4	7,1	5,1
ERAIKINAK	115,3	0,3	7,0	5,0
OBRA ZIBILA	117,0	0,7	7,3	5,4
LEHENGAIEN KOSTUA	115,4	0,5	7,3	4,8
ERAIKINAK	114,9	0,4	7,2	4,7
OBRA ZIBILA	117,1	0,9	7,7	5,1
LAN-ESKUAREN KOSTUA	116,6	0,0	6,3	6,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es